



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailak 27

Vitoria-Gasteiz, 27 de febrero de 2018

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN PLANAREN KOORDINAZIO, JARRAIPIEN ETA EBALUAZIORAKO BATZORDE BAT SORTUKO DU

Gobernu Kontseiluak 2017-2020ko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Erakunde arteko Batzorde baten sorkuntza onartu du. Plan hori joan den urteko urrian onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta Planaren beraren koordinazioaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratuko den organo baten sorkuntza hartzen du kontuan, Eusko Jaurlaritzak arlo horretan azken urteetan onartu dituen plan guztiek bezalaxe.

Batzorde berria Lehendakaritzari atxikita egongo da, eta, besteak beste, sailek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan egiten dituzten ekintzak dinamizatu eta koordinatzeko funtzioa izango du. Batzordea osatuko dutenak honako hauek dira:

1. Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako titularra.
2. Koordinazio Zuzendaritzako titularra.
3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko titularra.
4. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako titularra.
5. Gazteria Zuzendaritzako titularra.
6. Justizia Zuzendaritzako titularra.
7. Segurtasun Sailak izendatutako goi-kargudun bat.
8. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak izendatutako goi-kargudun bat.
9. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak izendatutako goi-kargudun bat.

Batzordea Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko titularrak zuzenduko du, eta urtean behin bilduko da gutxienez.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNUAK ONETSI EGIN DU 2017-2021 GIZARTERATZEKO IV. EUSKAL PLANA

- **Beatriz Artolazabalek:** “Euskal erakundeek oinarrizko tresna dute gizarteratzeko euskal politiketarako, Euskadi lurralde inklusibo gisa sustatzeko”
- **Helburuak:** aktibazio inklusiboa; bizi-kalitatea, pertsonalizazioa eta autonomia; eskubideen ikuspegia; arreta komunitarioa; zerbitzuen eta prestazioen konbinazio egokia; eta herritarren, eraginpean dauden pertsonen eta hirugarren sektoreko erakundeen parte-hartzea

Euskal Gobernu Kontseiluak **2017-2021 Gizarteratzeko IV. Euskal Plana** onetsi du gaur, eta Gizarteratzeko Kontseiluaren oniritzia du. Bertan, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako ordezkariak daude, bai eta erakunde sindikalenak, enpresa-erakundeak, erabiltzaileenak, gizarteratzearen inguruan esku hartzen duten gizarte-ekintzako hirugarren sektorearenak eta gizarteratzearen eremuan lan egiten duten profesionalenak ere.

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren hitzen arabera, “hura onestean, euskal erakundeek oinarrizko tresna dute gizarteratzearen inguruko euskal politikak antolatze eta egituratzeko. IV. Plan hori **sailen artekoa** da, eta ulertzen da gizarte-kohesioaren eta desberdintasunaren aurkako borrokaren helburua Eusko Jaurlaritzako sail guztien eskumena dela.

Hori dela eta, jarduketak jasotzen ditu hainbat eremutan, besteak beste, **hezkuntza, enplegua, osasuna, gizarte-zerbitzuak, lana eta etxebizitza**. Gainera, erakundeen artekoa da; izan ere, hura prestatzeko fase guztietan adostu du Gizarteratzeko Erakundearen arteko Batzordeak; bertan, foru-aldundiek eta udalek -Eudelen bidez- eta Eusko Jaurlaritzak parte hartzen dute.

Kalitateko enplegu egonkor ordaindura jotzea funtsezko elementua da gizarteratzeko, baina, aldi berean, kasu batzuetan, egokiagoa eta lehenetsunekoagoa izan daiteke beste funtsezko dimentsio batzuen gainean lan egitea.

Plan horrek **gizarteratzearen** dimentsio aniztasuna eta inplikazioak aitortzen ditu. Errealizazio pertsonalari eta lanbide-garapenari dagokienez lanak duen eginkizunaren balioa nabarmentzeko, hausnarketa honek gizarteratzeko programek, enplegarritasunarekin batera, beste dimentsio batzuk lantzeko

gizarte-interesekoetan beharra nabarmentzen du, besteak beste, aisia, jarduera komunitarioetan edo parte hartzea.

“Proiektuak **baterako ibilbide-orria** planteatzen du euskal administrazioentzat, bazterketaren eremuan, guztiek lehenesten dituzten beharren arabera”, esan du Artolazabalek.

Gizarteratzeko IV. Euskal Planak **gobernamendua eta sistemaren antolaketa nabarmentzen ditu**, sektoreen arteko koordinazioa hobetzeko -horretarako, esku hartzeko baterako eredua garatzen du-, berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa sustatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren barne-antolaketan aurrera egiteko.

Gizarteratzeko IV. Planak sei jarduketa-printzipio ditu, **Euskadi lurralde inklusibo gisa sustatzeko**: aktibazio inklusiboa; bizi-kalitatea, pertsonalizazioa eta autonomia; eskubideen ikuspegia; arreta komunitarioa; zerbitzuen eta prestazioen konbinazio egokia; eta herritarren, eraginpean dauden pertsonen eta hirugarren sektoreko erakundeen parte-hartzea”.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak, Planaren aurretiko urrats gisa, **Gizarteratze Aktiborako III. Euskal Planaren ebaluazioa** egin du, bai eta Plan hori prestatu aurretik idatzitako diagnostiko-txostena ere, 2017ko bigarren erdialdekoak.

3 ardatz

Gizarteratzeko IV. Euskal Plana hiru ardatz edo planotan antolatzen da, eta zazpi helburu estrategiko, 34 xede eta 146 jarduketa jasotzen ditu. **Jarduketa-ardatzen** artean nabarmentzekoak dira honako hauek: **diru-sarrerak bermatzeko eta laneratzeko politikekin bereziki lotutako neurriak**, eta horiek dira, 18/2008 Legearekin bat etorriz, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren nukleoa; gizarte-zerbitzuen, osasunaren, etxebizitzaren, hezkuntzaren edo beste batzuen eremuan garatu beharreko **neurri sektorialak**, sektore horietako plangintzan jasotako jarduketetatik abiatuta eta plangintza horietan Planean ezarritako helburu eta lehentasunak sartuz.

Era berean, **gizarteratzeko politiken erakunde arteko antolaketarekin** lotutako neurriak jaso dira, arreta berezia eskainiz sustapen politikoari eta planaren segimenduari, sektore arteko koordinazioaren hobekuntzari eta esku hartzeko baterako eredua eta partekatua sortu ahal izateko tresna tekniko eta profesionalen garapenari.

Beatriz **Artolazabalek** esan duenaren arabera, “ardatz horietan, arlo berezi bakoitzerako ezartzen diren xedeak enpleguaren eremuan **enpleguaren ezegonkortasun-prozesuak prebenitzeko eta horiei heltzeko**, gazteen eta enplegarritasunerako zailtasun handienak dituztenen **laneratzea** sustatzeko eta Euskal Enplegu Sistemaren hobekuntzan **aurrera egiteko** planteatzen den

helburu estrategikoan zentratzen dira. Horretarako, guztira, 6 xede eta 26 jarduketa zehatz planteatzen dira”.

Prestazioak

“Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen eremuan, helburu estrategikoa **diru-sarrerak bermatzeko euskal eredia babestea eta hobetzea** da eta, horretarako, gizarte-legitimitatea eta jasangarritasun ekonomikoa bermatzea datozen urteotan. Horretarako, guztira, 4 xede eta 10 jarduketa zehatz planteatzen dira”, esan du Artolazabalek.

Sailburuak azaldu du “**gizarte-zerbitzuei** dagokienez, helburu estrategikoa Gizarte Zerbitzuen Legearen garapena sustatzea dela, gizarte-zerbitzuen gaineko eskubide subjektiboa euskal herritar guztientzat eraginkor izan dadin, eta gizarte-zerbitzuen sistemaren kontzeptuak Planean adierazitako printzipioetara egokitzeko bide ematea eta herritar aktiboak eta parte-hartze soziala izateko gizarteratzeko programa berriak sustatzea. Horretarako, guztira, 2 xede eta 12 jarduketa zehatz planteatzen dira”.

Osasunaren eremuan planteatzen den helburu estrategikoa honako hau da: gizarte-ahultasun egoeran dauden herritarren ohitura osasungarriak sustatzea, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen osasun-zerbitzuetara duten sarbidea hobetzea eta osasunean dauden gizarte-desberdintasunak murriztea. Horretarako, guztira, 5 xede eta 26 jarduketa zehatz planteatzen dira.

“**Etxebizitzaren** eremuan –esan du Artolazabalek– helburu estrategikoa da gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen etxebizitza egokia eskuratzeko duten sarbidea erraztea eta, horretarako, etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea eta egoitza-bazterketako egoerak prebenitzea eta horiei heltzea. Horretarako, guztira, 3 xede eta 17 jarduketa zehatz planteatzen dira”.

Hezkuntzaren eremua dela eta, “helburu estrategikoa da gizarte- eta ekonomia-egoera ahulenean dauden pertsonen, adina edozein dela ere, kalitateko hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuetara sarbide izatea, aukeraberndintasunei eta helduaren mundura trantsizioa arrakastatsua izan dadin bide emateko. Horretarako, guztira, 4 xede eta 14 jarduketa zehatz planteatzen dira”.

Artolazabalek azaldu du “sektoreen arteko koordinazioa hobetzea, esku hartzeko baterako eredia garatzea, **ezagutzaren kudeaketa sustatzea** eta gizarteratzeko euskal sistemaren barne-antolaketan aurrera egitea plan honen beste helburu estrategikoetako bat dela, eta, horretarako, beste 9 xede eta 41 jarduketa zehatz planteatzen direla”.

Gizarteratzeko Plana **dinamikoa da**, planaren kudeaketari eta ezarpenari dagokionez. Aurreikusitako jarduketak aldatu eta osatu daitezke eta hala egin behar da; horretarako, jarduketa berriak gehitu daitezke edo hasieran aurreikusitakoak aldatu.

Enplegua eta Gizarte Politikak

**EUSKO JAURLARITZAK 33,7 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU
DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK ENPLEGU-ZENTRO
BEREZIETAN LANERATZEKO SUSTATZERA**

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak onetsi egin du Lanbidek desgaitasunen bat duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratzeko sustatzera bideratzen dituen laguntzen deialdia.

Enplegu-zentro berezien bidezko lan babestuko formula berezia funtsezko bilakatu da, Euskadin desgaitasunen bat duten pertsonak laneratzeko; izan ere, bide ematen dute okupazioa ematen dieten desgaitasunen bat duten pertsonak gizarte- eta lan-ohiturak hartzeko, aukera ematen dute ekoizpen-sisteman sartzeko eta beren enplegarritasuna hobetzen dute. Horrela, bada, ezinbestekoak dira pertsonak lan-merkatuan sartzeko.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegu-zentro bereziei ematen dizkien laguntza horien bidez, desgaitasunen bat duten pertsonak betetzen dituzten lanpostuen soldata-kostuak baino ez dira finantzatuko.

Desgaitasunen bat duten pertsonak lan egiteko eskubidea balia dezakete, enpresa eta administrazio publikoetako enplegu arruntaren bidez, laguntza duten enplegu-zerbitzuak barne, enplegu-zentro berezietako eta lan-enklabeetako enplegu babestuaren bidez; eta enplegu autonomoaren bidez.

Enplegu-zentro berezien helburu nagusia ekoizpen-lana egitea da eta, horretarako, merkatuko eragiketetan erregulartasunez parte hartzea eta lan ordaindua eta desgaitasunen bat duten bertako langileek dituzten behar pertsonal eta sozialetara egokitzen diren zerbitzuen prestazioa ziurtatzea. Eskabideak aurkezteko epea urte osoan dago zabalik.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 19,5 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU LEGEGINTZALDIAN ZEHAR TELELAGUNTZAKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATATZERA

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak onetsi du Euskal Autonomia Erkidegoan Telelaguntzako Zerbitzua emateko kontratazio-espedientea hastea.

Espediente berri horretarako 19.525.505 euroko gastua zenbatetsi da, guztira. 2018an, 2.052.378 euro bideratuko dira. Datorren urtean, 9.399.342 euro. Eta, 2020an, 8.073.785 euro. Kontratu berria 2018ko urriaren 17an sartuko da indarrean, eta bi urteko iraunaldia izatea aurreikusten da.

Kontratuaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osorako Telelaguntzako Zerbitzu Publikoa emateko zerbitzuak kontratatzea da.

betiON, Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu Publikoa 144/2011 Dekretuak arautzen du eta honela definitzen da: gizartean laguntzeko eta esku hartzeko zerbitzu teknikoa, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen testuinguruan; erabiltzaileei aukera ematen die, telefonoaren bidez eta komunikaziorako ekipamendu informatiko bereziarekin, etengabeko arreta-zerbitzua izateko, eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan, gizarte-larrialdietako edo -beharrizaneko egoeretara egokitutako erantzuna emateko prestakuntza berezia duten pertsonen eskutik, telelaguntzako zentral batetik, dela beren kabuz, dela beste baliabide komunitario batzuk mobilizatuz.

Arreta ematen duen taldearen eta beharrizan-egoeran dagoen pertsonaren arteko harremana aktibatzeko, beharrizana duen pertsonak berak zein zerbitzuak berak eska dezake, arrisku-egoera egon daitekeelako zantzuak daudenean.

Enplegua eta Gizarte Politikak

10,22 MILIOI EURO LANERATZEKO ENPRESETAN ENPLEGUA SORTZEKO ETA HORRI EUSTEKO

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Euskal Enplegu Zerbitzuak onetsi egin du laneratzeko enpresetan enplegua sortzeko eta horri eusteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzen deialdia; 10,22 milioi euroko zuzkidura du.

Laneratzeko enpresak ondasun edo zerbitzuen ekoizpen-egiturak dira, eta horien helburua da gizarte-egoera desabantailatsuan edo bazterketa-egoeran dauden kolektiboak lan-merkatuak sartzea.

Enpresa-mota horien laguntzak arautzen dituen Aginduak (*2009ko maiatzaren 4ko Agindua*) bi diru-laguntza ildo ditu: bat, laneratzeko enpresen sorrera bultzatzea, bideragarritasunari buruzko merkatu-azterlanak finantzatzuz; eta, bestea, dagoeneko sortu diren enpresei eusteko laguntza ematea, eta, horretarako, aktibo finkoetako, merkatuko azterlanetarako eta kontu-ikuskarizetarako inbertsioen finantzaketarako laguntzak ematea eta zuzenago lanpostua sortzeko eta hari eusteko laguntzak ematea

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ONETSI DU 4,79 MILIOI EURO BIDERATZEA GIZARTEAN ESKU HARTZEKO EREMUAN HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK SUSTATZERA

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur, 4.792.480 milioi euroko partida gizartean esku hartzeko eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzera bideratzea onetsi du. 2017an baino ia 500.000 euro gehiago dira.

Laguntza-mota horiek abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan arautzen dira, eta pertsona, familia eta taldeen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa babestera eta sustatzera bideratutako jarduerak finantzatzen laguntzen dute.

Gizarte-zerbitzuez gainera, ekintza-mota horiek gizarte-inklusioaren eremuan, familiaren babesaren eta haur eta nerabeentzako arretaren eta babesaren eremuan kokatzen dira. Era berean, etorkinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasunera, adinekoen, mendekotasun-egoeran daudenen eta desgaitasunen bat dutenen arreta eta babesera eta askatasun eta aniztasun afektibo-sexualera bideratzen dira.

Diru-laguntzen lehenengo lerroak pertsona, familia, talde eta erkidegoekin gizartean esku hartzeko jarduerak aurreikusten ditu. Laguntza horiei bide emateko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, 2018an, 3.743.480 milioi euro bideratuko ditu.

Bigarren lerroa gizartean esku hartzeko ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea sendotzeko jarduerak diruz laguntzera bideratuko da. Atal horren barruan, finantzaketa izan ahalko dute ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzearen garapena areagotzeko jarduerak: zehazki, erakundeak, sareak edo federazioak sortu eta hobetzeko ekintzak. Laguntzen kapitulu honek 599.000 euroko zuzkidura du.

Hirugarren lerroak gizartean esku hartzeko ezagutza kudeatzeko jardueretarako diru-laguntzak sustatzen ditu; horretarako, 450.000 euro bideratzen ditu.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 1,7 MILIOI EURO BIDERATZEN DITU FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA UZTARTZEN DITUZTEN ENPRESETARA

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak onetsi egin du familiako eta laneko bizitza uztartzeko laguntzen deialdia, Lanbideko Administrazio Kontseiluaren derrigorrezko Akordioaren ondoren.

Laguntza-ildo horrek 1,7 milioi euro ditu, seme-alabak eta mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden familiartekoak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileen egoerei laguntzeko. Horiek norberaren kontura dabilzan pertsona fisikoek eta EAEn lan-zentroa duten pertsona juridiko pribatuak –sozietate publikoak izan ezik– eskatu ahalko dituzte.

Familiako eta Laneko Bizitza Uztartzeko Laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak familiei zuzendutako hiru jardun-ildo aurreikusten ditu: lehenengoa, seme-alabak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileei laguntzeko; bigarrena, mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden familiartekoak zaintzeko; eta, hirugarrena, seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko.

Bestalde, Dekretuak laugarren laguntza-ildo ere aurreikusten du, baina hori enpresa kontratatzaileak diruz laguntzera bideratzen da, eta zuzenean kudeatzen ditu Lanbidek (aurreko hirurak Familiako eta Politika Komunitarioko Zuzendaritzak). Gaur Gobernu Kontseiluak onetsi dituen laguntza azken laguntza-ildo horri dagozkio.

Oro har, lau jardun-ildoak Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakundearen arteko III. Planaren esparruan kokatzen dira; horren funtsezko helburua da familien sustapen- eta laguntza-politikak sustatzea beren bizi-ziklo osoan.

Enplegua eta Gizarte Politikak

**EUSKO JAURLARITZAK 500.000 EURO BIDERATUKO DITU GIZARTE
SEGURANTZAREN KUOTAK ORDAINZEKO DIRU-LAGUNTZETARA,
LANGABEZIA-PRESTAZIOA ORDAINKETA BAKARREAN JASOTZEN
DUTENENTZAT**

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluari Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren ebazpenaren berri eman dio; horren bidez, 2018an Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzeko langabezia-prestazioa ordainketa bakarrean jasotzen duten pertsonentzako diru-laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzen dira. Lanbidek 500.000 euro bideratuko ditu.

Ogasun eta Ekonomia

KONTU EKONOMIKOEN HIRUHILEKOKO BALORAZIOA “EUSKAL EKONOMIAK URTEAN HAZKUNDE ERRITMO SENDOARI EUTSI DIO”

EUSTATEk gaur goizean jakinarazitako kontu ekonomikoek adierazten dute euskal ekonomiak urtean hazkunde-erritmo sendoari eutsi diola, % 2,9koa 2017an.

Hazkunde horren ezaugarriak honako hauek dira:

1. **Enpleguak**, guztira, % 2,0 egin zuen gora laugarren hiruhilekoan, eta % 2,1 urtean; bi zifra horiek Gobernuak abenduan eginiko aurreikuspenetik hamarren bat gorago daude. Hau da, bilakaera oso egonkorra da, eta, horrela, produktibitate-irabazia posible da ekonomia nabarmen orokorrerako, Estatuan oro har lortzen denaren oso gaineratik. Lortu da denbora osoko 19.000 lanpostu sortzea urte osoan, eta, urteko batez bestekoa, 935.000 enplegutik gorakoa da, 2011. urtetik zifrarik altuena.

Sektore guztiek izan dute eragina enpleguaren sorreran, baina jarraitzen dute zerbitzuek nabarmenago izaten (urte arteko % 2,2 2017an) eta bultzada handia izan dute industriak eta eraikuntzak (% 1,7 eta % 1,6, hurrenez hurren).
2. **Amaierako kontsumoak eta kapital-eraketa gordinak** erritmo onean egin dute gora. Nabarmenezkoa da azken horren indarra; urteko batez bestekoan 2016ko emaitza hobetu du (lehen % 3,1ekoa zen eta, orain, % 3,5ekoa). Ona da ekonomia agregatuetako batean bakarrik ez oinarritzea, eta bien arteko oreka egotea. Are hobea da inbertsioa izatea gehien hazten den agregatu makroekonomikoa, kontsumoaren gaineratik; izan ere, inbertsioak etorkizuneko hazkundeari bide ematen dio.
3. Aurreko urteetan antzematen zen ekipo-ondasunetako **inbertsioa** zela nagusi, baina, une hauetan, inbertsioaren bi osagaiak bateratu egiten dira: ekipoko inbertsioa 2017an % 4,7 hazi zen, 2016an baino pixka bat gutxiago, eta inbertsioaren gainerakoa % 2,7, aurreko urtean baino ia puntu bat gehiago.
4. **Kontsumo pribatuak** moteldu egin du hazkunde-erritmoa, % 2,8ra arte; hamahiru hiruhileko egon da, elkarren segidan, hazten, % 3,0 edo gehiagora arte. Dezelerazio hori espero zen duela denbora asko, baina ez zen guztiz gauzatu. Ona da kontsumoa BPGd-a baino gehiago ez haztea, familien zorpetzea ez areagotzeko, kontuan hartuta aurrezki-tasa (Estatuan, oro har) nahiko baxua dela.

5. **Kanpo-sektorea** dinamizatu egin da mundu guztian, baita Europan ere, eta horrek euskal enpresen jarduera esportatzaile eta inportatzaile handiagoa dakar. Bi aldagaiak % 3,0 inguru hazi ziren 2017an, termino errealetan. Hori dela eta, BPGd-ari eginiko ekarpena ia nulua da. Horrek ez du esan nahi kanpo-arloarekiko merkataritza garrantzitsua ez denik, baizik eta esportazioen ekarpen positiboa ez dela konpentsatzen inportazioen ekarpen negatiboarekin, baina biak atzeraelikatzen dira eta jarduera ekonomikoa areagotzen laguntzen dute.
6. **Eskaintzaren** aldetik, industriaren bultzada da nabarmena (% 3,7 laugarren hiruhilekoan eta % 2,7 urteko batez bestekoan), eta eskarien sarreran gorakada handia egon da, eta horrek bermatu egiten du sektorearen etorkizuneko bilakaera ona. Gainera, industrian lanaren faktorearen produktibitatea nabarmen berreskuratu dela nabarmentzen da, kontuan hartuta hiruhileko batzuetan batez besteko historikotik urrun egon dela.

Eraikuntzak sendotu egiten du hazkundea % 3,0ren gainean urteko bigarren erdialdean. Sektorearen martxa ona eraikuntzaren bilakaera onean nabarmentzen da, baina urtearen amaierako tartean lizitazio ofizialaren gorakada handiak agerian uzten du azpiatal horrek ere areagotu egingo duela bere jarduera laster.

Zerbitzuek gora egin dute 2017an (% 3,1), 2016an baino pixka bat gehiago. Bereziki merkataritzan, ostalaritzan eta garraioan sartzan diren zerbitzuek izan dute bultzada handiagoa urtean zehar (% 3,7), baina azken laurdenean % 3,1era iritsi ziren. Administrazioari, hezkuntzari, osasunari eta gizarte-zerbitzuei lotutako zerbitzuek hobetu egin zuten beren balio erantsia % 2,7ra arte, baina, hala ere, gorabehera nabarmenak izaten dituzte. Azkenik, gainerako zerbitzuak 2016an erregistratutako % 2,8an mantendu ziren.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 54.000 EURO BIDERATUKO DITU GURE ARTEA SARIETAKO HIRU MODALITATEETAKO IRABAZLEAK SARITZERA

- **Hauen helburua da euskal arte garaikidearen hedapena erraztea, arte plastiko eta ikusizkoen arloan gizartearen aitortza bideratuz**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak Gure Artea sariak arautu eta horietarako deialdia egiten duen agindua onartu du bere gaurko saioan. Guztira, 54.000 euro bideratuko dira ekimen honek saritzen dituen modalitate ezberdinetara, eta irabazle bakoitzak 18.000 euro jasoko ditu. Hiru modalitate daude sari hauen baitan: ibilbide artistikoa saritzen duena, sorkuntza-lana aitortzen duena eta arte plastiko zein ikusizkoen eragileen sustapenaren ingurukoa.

Sari hauek sormenaren garapena bultzatzea dute helburu, arte-sorkuntzarako pizgarriak erraztuz eta aitortza eskainiz arte sorkuntzari. Horrez gain, euskal arte garaikidearen hedapena errazteko xedea dute, arte plastiko eta ikusizkoen arloan gizartearen aitortza bideratuz.

Lehenengo modalitateak, lan eta ibilbide osoa aintzat hartuta “egindako lan sortaileagatik eta kulturari zein arte garaikideei egindako ekarpenagatik” nabarmentzen den artisten lana saritzen du. Bigarren modalitateak azken urteak hartzen ditu kontuan, eta “bere jarduera artistikoagatik zein sorkuntza garaikideari egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista edo artista-taldea” saritzen du. Azkenik, hirugarren modalitateak arte plastiko eta ikusizkoen arloan eragileek egindako sustapen lana saritzen du. Hortaz, sari hauen baitan bai sortailean, bai bestelako agentean saritu daitezke.

Iazko Gure Artea Sarietako irabazleak apirilean eman ziren aditzera, eta sari hauek banatzeko ekitaldia ekainean izan zen.

Segurtasuna

ALDERDI POLITIKOEN OHIKO FUNTZIONAMENDURAKO URTEKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DA

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, onartu du 2018. urterako alderdi politikoei eman beharreko diru-laguntzen banaketari buruzko Segurtasun Sailaren erabaki-proposamena.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2018rako Aurrekontu Orokorren Legeak 4.536.000 €-ko kontu-saila hartu du aintzat Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politikoen ohiko funtzionamendua diruz laguntzeko.

Eusko Jaurlaritzak banatuko du kontu-sail hori alderdien artean, eta, horretarako, Alderdi Politikoak Finantzatzeko Legean ezarritako irizpideei jarraituko die eta 2016ko irailaren 25eko azken hauteskunde autonomikoetako emaitzak hartuko ditu oinarri.

Hau izango da ekitaldi honetarako diru-laguntzen banaketa:

EAJ- PNV	1.750.903,84 €
EH-BILDU	1.033.826,51 €
Elkarrekin-Podem	690.569,17 €
PSE-EE (PSOE)	558.134,51 €
PP	502.565,97 €

Lana eta Justizia

GOBERNU KONTSEILUAK BAIMENA EMAN DU DONOSTIAKO BULEGO JUDIZIALEKO ETA GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO LANPOSTUEN ZERRENDAK ONARTZEKO

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lanpostuen zerrendak onartzeko, Donostiako Bulego Judizialari eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiari dagozkienak; Bulego Judizialari atxikitako 320 lanpostu.

Lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretuak Donostiako Bulego Judizialeko eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko langileen antolamendua ezartzen du, zerbitzu modernoagoa eta eraginkorragoa izateko, lanaren arazoizko erabilera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden giza baliabideen eta materialen aprobetxamendu hobea bermatzeko.

Presidencia

EL GOBIERNO CREA UNA COMISIÓN PARA LA COORDINACIÓN, SEGUIMIENTO Y EVALUACION DEL PLAN DE CONVIVENCIA Y DDHH

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde hoy a la creación de la Comisión Interdepartamental del Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020. Dicho plan fue aprobado por el Ejecutivo vasco en octubre del pasado año y en él se contempla - al igual que en los sucesivos planes que ha ido aprobando el Gobierno sobre esta materia en los últimos años- la creación de un órgano encargado de su coordinación, seguimiento y evaluación.

Así, la nueva comisión - que estará adscrita a Lehendakaritza- tendrá, entre sus funciones, la de dinamizar y coordinar las acciones que se realicen desde los distintos departamentos en materia de convivencia y derechos humanos, y estará integrada por:

1. La persona titular de la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos.
2. La persona titular de la Dirección de Coordinación.
3. La persona titular de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.
4. La persona titular de la Dirección de Innovación Educativa.
5. La persona titular de la Dirección de Juventud.
6. La persona titular de la Dirección de Justicia.
7. Una persona, con rango de alto cargo, designada por el Departamento de Seguridad.
8. Una persona, con rango de alto cargo, designada por el Departamento de Empleo y Políticas Sociales.
9. Una persona, con rango de alto cargo, designada por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.

La Comisión estará presidida por la persona titular de la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación y se reunirá, como mínimo, una vez al año.

Empleo y Políticas Sociales

EL GOBIERNO APRUEBA EL IV PLAN VASCO DE INCLUSIÓN 2017-2021

- **Beatriz Artolazabal:** “Las instituciones vascas cuentan con una herramienta básica para las políticas vascas de inclusión para potenciar Euskadi como territorio inclusivo”
- **Objetivos:** activación inclusiva; calidad de vida, personalización y autonomía; perspectiva de derechos; atención comunitaria; combinación adecuada de servicios y prestaciones; y participación de la ciudadanía, personas afectadas y entidades del Tercer Sector

El Consejo de Gobierno Vasco ha aprobado hoy el **IV Plan Vasco de Inclusión 2017-2021**, que cuenta con el visto bueno del Consejo para la Inclusión Social que incluye la presencia de representantes del Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos, así como las organizaciones sindicales, las organizaciones empresariales, las de personas usuarias, las del tercer sector de acción social que intervienen en materia de inclusión y las de profesionales que trabajan en el campo de la inclusión social.

